



**A K T A**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2003ko irailaren 30a

**LEKUA:** Udaletxeko udalbatzarraren aretoa

**DEIALDIA:** Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:15 **AMAIERA-ORDUA:** 19:40

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Mirari Arruabarrena Elizalde

**Zinegotziak**

Eneko Olariaga Arruti, Eugenio Cotado Iturain, Noemi Ostolaza Arkauz, Andoni Sarasua Oliden, Maria Elena Legarra Alfaro, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ramon Etxeberria Aldaz, Martxiel Genoba Solabarrieta, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

**Idazkari-Kontuhartzailea funtziotan**

Ibai Lertxundi Iribar

## Aztergai zerrenda

- 1.- 2003ko ekainaren 14an egindako Udala eratzeko bilkuraren aktaren zirriborroa irakurtzea eta, egoki bada, onartzea.
- 2.- Orioko Udalaren 2002ko Aurrekontu Propioaren Kontu Nagusia behin betikoz onartzea, egoki bada.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Kreditua Aldatzeko 5/2003 espedientea. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kreditu gehigarriak.
- 4.- ORIO GARATZEN SL erantzukizun mugatuko sozietate urbanistikoaren estatutuak ontzat hartzea, egoki bada.



- 5.- Onartzea, egoki bada, hiru administrari laguntzaile lanpostu administrazio orokorreko administrari gisa birklasifikatzea, barne sustapeneko sistemaren bidez.
- 6.- Onartzea, egoki bada, hiru administrari lanpostu betetzeko deialdiaren oinarriak. Deialdia lehiaketa bidezkoa izango da eta barne sustapenez gauzatuko da.
- 7.- Onartzea, egoki bada, tipo, kuota, tarifa eta ordenantza fiskalen ezarpena eta aldaketa, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.
- 8.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- 2003KO EKAINAREN 14AN EGINDAKO UDALA ERATZEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTzea ETA, EGOKI BADA, ONARTZEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**ONARTZEA** Udalbatzarrak 2003ko ekainaren 14an egindako Udala eratzeko bilkuraren akta.

### **2.- ORIOKO UDALAREN 2002KO AURREKONTU PROPIOAREN KONTU NAGUSIA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (Aldeko 10 boto: Mirari Arruabarrena (EAJ), Eneko Olariaga (EAJ), Eugenio Cotado (EA), Noemi Ostolaza (EAJ), Andoni Sarasua (EAJ), Maria Elena Legarra (EA), M. Jose San Sebastian (EAJ), Ramon Etxeberria (EAJ), Martxiel Genoba (EAJ), Aurora Azkue (EA) eta abstentzio bat: Jesus Jose Rodriguez (PSE-EE-PSOE)):

**BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** Orioko Udalaren 2002ko aurrekontu propioaren kontu nagusia.



**3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KREDITUA ALDATZEKO 5/2003 ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA HONAKO MODALITATEAN EGIN DA: KREDITU GEHIGARRIAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko irailaren 25ean egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2003ko aurrekontu propioari dagokion 5/2003 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 24.082,71 eurokoa da eta 2003ko aurrekontuko hondartzako parkinaren sarreraren superabita erabiliz finantzatzen da. Kreditua aldatzeko espedientea kreditu gehigarriak modalitatea erabiliz egin da.

**2.-** Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

**Erakutsita dagoen lekua:** Kontuhartzailletza.

**Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea:** hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzarkideek.

**Inpugnatzeko arrazoiak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

**Erreklamazioak aurkezteko:** udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

**4.- ORIO GARATZEN SL ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIJETATE URBANISTIKOAREN ESTATUTUAK ONTZAT HARTZEA, EGOKI BADA.**



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko irailaren 25ean egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

- 1.- **ONTZAT HARTZEA** ORIO GARATZEN SL erantzukizun mugatuko sozietate urbanistikoaren estatutuak.
- 2.- Ondorioz, **BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** ORIO GARATZEN SL erantzukizun mugatuko sozietate urbanistikoaren estatutuak.
- 3.- Aipatu Estatutuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean **ARGITARATZEA**, jendearen ezagupenerako eta dagozkion ondorioetarako.

## **5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, HIRU ADMINISTRARI LAGUNTZAILE LANPOSTU ADMINISTRAZIO OROKORREKO ADMINISTRARI GISA BIRKLASIFIKATZEA, BARNE SUSTAPENEN SISTEMAREN BIDEZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta 2003ko irailaren 25ean egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**ONARTZEA** hiru administrari laguntzaile lanpostu administrazio orokorreko administrari gisa birklasifikatzea, barne sustapeneko sistemaren bidez.

## **6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, HIRU ADMINISTRARI LANPOSTU BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK. DEIALDIA LEHIAKETA BIDEZKOA IZANGO DA ETA BARNE SUSTAPENEZ GAUZATUKO DA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko irailaren 25ean egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):



**ONARTZEA** hiru administrari lanpostu betetzeko deialdiaren oinarriak. Deialdia lehiaketa bidezkoa izango da eta barne sustapenez gauzatuko da.

## **7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TIPO, KUOTA, TARIFA ETA ORDENANTZA FISKALEN EZARPENA ETA ALDAKETA, 2004KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERAKO ONDORIOEKIN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko irailaren 25ean egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** tipo, kuota, tarifa eta ordenantza fiskalen ezarpena eta aldaketari, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

**2.-** Hartutako erabakia eta horretarako osatu den espedientea informazio publikora jartzen dira, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunak Arautzeari buruzkoak, 16.1 artikuluan xedatzen duena betez, Gipuzkoako **ALDIZKARI OFIZIALEAN** eta Udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz. Hori guztia honako arauei jarraituz:

- a) **Ikusgai dauden tokia:** Udaletxeko Idazkaritzan.
- b) **Aztertzeko eta, kasua balitz, erreklamazioak aurkezteko epea:** 30 lanegunetakoa, iragarki hau Gipuzkoako **ALDIZKARI OFIZIALEAN** argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera kontatuta, bulego orduetan.
- c) **Erreklamazioak aurkeztea zilegi zaienak:** uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 17. artikuluan aipatzen dituenak.
- d) **Aurkezteko tokia:** Udaletxeko Sarreren Erregistro Nagusian. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoa), 38.4 artikuluan, seinalatzen dituen lekuetan ere aurkez daitezke.
- e) **Errekurtsoa sartzeko organoa:** Udal Plenoa.

Behin informazio honen erregelamenduzko epea amaituta, inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez bada, behin-betikotzat joko dira hartutako erabakiak eta aldatutako Ordenantzen eranskinak, beste erabakirik hartu beharrik izan gabe.



## 8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Entzulegoaren arteko pertsona batek hartzen du hitza eta Udaletxearen normaltasun falta salatzea etorri direla azaltzen du eta, era berean, Alkateari zuzentzen zaio, hitz egiteko borondate falta egotziz.

Alkateak berak ukatutako bilerarik ez duela izango erantzuten dio eta, are eta gehiago, bihar bertan beste bilera bat egitekotan direla.

Entzulegoaren eta udalbatzarkide batzuen artean sortutako eztabaida nahasia ikusita, Alkateak bertan behera uzten du bilkura.

Aztergai zerrendatik kanpo beste erabaki bat hartu du Udalbatzarrak, gaia alde zurretik eta **AHO BATEZ** urgentziazkoa izendatu ondoren.

## 9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL KIROLDEGIKO TABERNA-KAFETEGI-JATETXEAREN USTIAKUNTZA KONTZESIO ADMINISTRATIBO GISA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA IREKIKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA JURIDIKOAK ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza batzordeak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezkotako boto):

**ONARTZEA** Orioko udal kiroldegiko taberna-kafetegi-jatetxearen ustiakuntza kontzesio administratibo gisa adjudikatzeko prozedura irekiko lehiaketa arautuko duten baldintza juridikoak eta ekonomiko-administratiboak. Laburpen moduan, onartutako klausulen edukia honako hau da:

*Herri Administrazioen Kontratuen Legearen eraberritutako testua onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legearen 78. artikulua xedatutakoaren arabera, argitaratu egiten da baldintza pleguen laburpen hau:*

### **1.-Erakunde adjudikatzailea.**

a)Erakundea: Orioko Udala.

b)Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza-Kontuhartzailtza.

### **2.-Kontratuaren helburua.**

a)Helburuaren azalpena:



*Orioko Udal Kiroldegiko Taberna-Kafetegia edota Jatetxearen ustiapena adjudikatzea, kontzesio administratiboko erregimenpean.*

b)Exekuzio lekua:

*Orioko Udal Kiroldegia. Erribera kalea, 1.*

c)Kontratuaren iraupena:

*20 urte luzaezinak, adjudikazioaren jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.*

*d)Kontratuaren exekuzioak honakoak hartzen ditu barnean: Udal Kiroldegian Taberna-Kafetegi edota Jatetxe zerbitzuetarako izendatutako lokalak egokitzeko beharrezko obrak eta instalazioak egitea.*

### **3.-Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era.**

a)Tramitazioa: Ohikoa.

b)Prozedura: Irekia.

c)Era: Lehiaketa.

### **4.-Lizitazioaren kopurua.**

*Ez da ezartzen lizitazio tiporik.*

*Lizitatzailleek libreki aurkeztuko dituzte eskaintzak eta honako hauek adierazi beharko dituzte:*

*a) Obretan egin beharreko inbertsioen kopurua. Kontzesioa bukatutakoan, obra horiek kiroldegiaren eraikinari atxikiak geratuko dira.*

*b) Kontzesioaren urteko kanonaren kopurua, eta kanon hori Udalari ordaintzeko epeak zein izango diren. Urteko kanona ordaintzeko epeak, gutxienez hiruhilabetetik behingoak izango dira.*

*c) Kanona urtero berrikusteko formula zein izango den.*

### **5.-Garantiak.**

*Behin-behinekoa: 3.005,06 €*

*Behin-betikoa: Aurreneko urteko kanona gehi egin beharreko obra eta instalazioen kostu guztiaren % 4.*

### **6.-Iragarki gastuak.**



*Adjudikaziodunaren kontura izango dira.*

**7.-Kontratataren sailkapena.**

*Ez da eskatzen.*

**8.-Baldintza pleguen erakustaldia.**

*Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legearen 122. artikulua xedatutakoaren arabera, baldintza plegua jendaurrean izango da zortzi laneguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita, erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak, baldin badaude, Udalbatzarrak erabakiko ditu. Erreklamaziorik izanez gero, lizitazioa ez da atzeratuko ez baldin bada guztiz beharrezkoa.*

**9.-Agiriak eta informazioa jasotzeko.**

*a)Erakundea: Orioko Udala*

*b)Helbidea: Herriko Enparantza, 1*

*Herria eta posta kodea: 20810 Orio*

*d)Telefonoa: 943 83 03 46*

*e)Faxa: 943 13 02 60*

**10.-Eskaintzak aurkezteko.**

*a)Aurkezteko azken eguna: 26 egun, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.*

*b)Aurkezteko diren agiriak: Pleguetan zehaztutakoak.*

*c)Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzaitetzan. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.*

*d)Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30etara;*

**11.-Eskaintzen irekiera.**

*a)Tokia: Orioko Udaletxea.*

*b)Eguna: Proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunaren hurrengo lanegunean. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.*

*c)Ordua: Eguerdiko 12:00etan.*





# **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

**Udalbatzarraren bilkurako akta • 2003/09/30**

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria funtziotan naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA,**